

Eva Sudupe (LKS kooperatiba)

Koordinatzaileei elkarrizketa:

1. Datu orokor batzuk: enpresa zein den, noiztik dago martxan Euskara Plana, noiztik zara koordinatzaile, ...

LKS Ingenieria, S.Coop.

Euskera plana noiztik??? Ez nago ziur, baina izango dira 10 bat urte.

Koordinatzailea naiz azkeneko 3-4 urtetan.

2. Euskararen nolako erabilera irudikatzen duzu zure lantegian 10 urte barru?

Etorkizunean, LKS Ingenieritzan euskaraz dakien orok, enpresako edozein dokumentu bere hizkuntzan ikustea ondo legoke. Eta bere lanari dagokionean, bezeroengandik geroz eta eskaera gehiago euskaraz egotea gustatuko litzaidake eta jatorria Arrasaten duen enpresa garen moduan, horri erantzuna emateko gai izatea ere bai.

3. Planak dituen kanpo babesak (dirulaguntzak, agiriak...) nahikoak iruditzen al zaizkizu? Zer behar da?

Enpresak euskerarekiko ahalegintxo bat egiten du eta horren "sari" edo "rekonpensa" moduan ondo etortzen da diru hori. Bestalde kanpotik lagungarri izan daitezken agirik eta abarrak ongiegi ez ditugula ezagutzen iruditzen zait. Horien zabalkundea hobeto egin beharko litzateke, askotan eginda dagoen lana ezagutzen ez delako berriro egiten ibiltzen bait gara.

4. Eta barruko babesak? Zer falta da?

Nahizta aurrerapen ugari ikusi ditudan enpresaren barruan, oraindik lan asko dago egiteko:

- Dokumentazio ugari gaztelaniaz bakarrik dago.
- Jendearen artean, nahizta denek euskaraz jakin, batzuetan gaztelaniara jotzen da.
- Euskaldun berriak egon arren, hauekin gaztelaniaz hitzegiten jarraitzen dugu, horrela ohituta gaudelako.
- Laneko bileretan, nahizta guztiak euskaldunak izan, gaztelaniaz egiten dira. Laneko gaietaz errazago hitzegiten da gaztelaniaz.

5. Zergatik koordinatzaile? Zerk bultzatu zintuen Euskara Planeko lanetan konprometitzera?

Ba egia esan enpresak berak proposatu zidan Koordinatzaile izatea. Bertan zer aurkituko nuen eta zer egin behar nuen oso ondo jakin gabe, proposamen hau onartu egin nuen eta gustora nago hartutako erabakiarekin. Euskararekiko, asko ez, baina zerbait egiteko aukera ematen du eta gainera urtetik urtera enpresa euskerarekiko konprometituta dagoela eta geroz eta ekintza gehiago egiten direla ikustea, benetan pozgarria da.

6. Zer nolako profila izan beharko luke koordinatzaileak bere lana egoki betetzeko? Profila esaten dugunean, formazioaz ari gara, pertsonaren dohainez ari gara, trebetasunez eta gaitasunez ari gara.

Koordinatzaile izateko:

- Euskerarekiko lana egiteko prest egotea
- Berea lanaz gain, koordinatzaileak denbora pixka bat Euskarari eskaini behar dio eta Euskara

- Teknikoari ere lagundu egin behar dio. Hartutako konpromezuak bete egin behar ditu.
- Euskera Teknikoaren laguna izan behar du, enpresako gorabeheretan lagundu behar dio eta zenbait lan aurrera eramane behar ditu.
 - ...

7. Zer eman dizu koordinatzaile izateak? Zer ekarpen egin dizu postuak? Eta zerbait kendu al dizu?

Kendu ez dit ezer ere egin.

Eman? Ba orain euskerarekiko enpresaren barruan zerbait egiten dudala uste dut. Eta koordinatzailea izango ez banintz, seguruenik ez nuke egingo.

8. Zer zailtasun dituzu zure koordinatzaile lana aurrera eramateko? Zer falta zaizu?

Zailena, agindutako lanak aurrera eramateko denbora falta izaten dudala da. Lanez gain ibiltzen gara guztiok eta honelako gaiei lehentasun gutxiago ematen diogunez, beti lanak ezin eginda ibiltzen naiz.

9. Koordinatzaile kargua hartu zenuenean, espero al zenuen egin beharreko lana horrela izango zela? Zerk harritu zaitu gehien?

Ez, gauzek ez naute gehiegi harritu. Gutxigorabehera pentsatzen nuen zer egongo zen. Baina Euskera Batzordearen barruan egonda, gauza gehiago ezagutzen dira eta Enpresaren benetako konpromezua ezagutzea oso ondo dago.

10. Beste zerbait esan nahiko bazenu:

Edonork, edozein enpresetan, Euskerarekiko zerbait egitea nahi badu, aukera bat Euskera Batzordeetan parte hartzea da eta beste aukera bat, dagoen lekuan dagoelarik ere, Euskeraz inguruko guztiak "kontagiatzea".